



Antxiñako fotografixia



Agustiñuak Aloña Mendiren kontra

Urten barri dauen Aloña Mendiren liburu ederrian makiñatxo bat fotografixa dator. Baiña, hala ta be, badira han eta hemen kirolarekin zerikusixa dakoin Oñatiko argazki gehixago. Futbolistenak batez be, baiña pelotari eta txirrindularixenak be ez dira falta. Politta izango litzake deporte-sail guztietan ahalik eta pillarik osotuena batzeia. Oraingo hau Valentzia aldiari bizi dan txantxiuak batek bialdu dosku.

Hemen agerketan diran futbol-taldiak Oñatiko **elbarritu** edo **inbaliduen** omenez jokatu euen Azkoagainen 1967/1968 inguruan. Ezkerraldian, zuriz, Oñatiko **agustiñuen** ekipua dago, eta eskuman garai hartako **Aloña Mendi** taldia betiko kamisetiarekin. Ohorezko sakia Kale Zaharreko **Kandi Zulueta** emakume ezagunak egin eben.

• Hona hemen laterandarrak ezkerretik eskumara eta goitik behera:

Zutik: Anastasio Lazkoz, Jon Bilbao, Martin Lakuntza, Joxe Luis Galdos, Antonio Garai, Karmelo Arabiourrutia eta Antonio Arabiourrutia.

Makurtuta: Bittor Madina, Imanol Murua, Luis Ezeolaza, Joakin Zubiarrain, Rafael Etxegarai eta Angel Elortza.

• Erdiko arbitruak: Luis Barrasa, Pablo Anduaga eta Jabier Iraola Txapa.

• Aloña Mendikuak, berriz honeik ziran:

Zutik: Migel Aramendi, Karlos Anduaga, Rafael Agirre, Fernando Irizar, Rafael Errasti, Peitto Inurritegi eta azkena ezezaguna.

Makurtuta: Joxe Mari Ugarte, Joxe Antonio Aiastui, Angel Mari Zurutuza, Juan Antonio Sansinenea eta Fernando Lucas.

Eztakiguna da partidua zela akabo zan. Ia baten batek hurrengo alerako argiketan doskun!

J. E.

Argazkixa eta informaziño asko Antonio Garaik bialdu dosku Manisesetik. Hutsunak beste laterandar batzuei esker osotu ditugu. Eskerrak danoiri.

OHARRA: Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXNera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituztu, zatozi!

**VRZELAI
DENDA**

Kale Barria, 26
OÑATI

outz

opari
dekorazio
eta etxerako
tresneria

Lopez de Lazarraga, 4 • Tel.: 943 78 00 36

Gu Oñatiarrekin

**Guipuzcoano
BANKUA**